

Ebazpena: R 71/2023

Espedientea: 32/2018

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 23a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak eta Sofía Arana Landín batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatutakoak, honako hau erabaki du:

ERABAKIA

Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak (aurrerantzean, ZAEA) Arabako Foru Aldundiaren (aurrerantzean, AFA) aurka planteatutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita zehaztea nork duen eskumena ORTOLAN DENTAL SL (aurrerantzean, ORTOLAN) sozietateak 2012tik 2015era bitarteko urteetan JBRO jaunari egindako lan pertsonalaren gaineko atxikipenak ordainarazteko. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 32/2018 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- ORTOLAN egoitza fiskala Araban daukan sozietate bat da, Espainia osoan ortodontziako produktuak merkaturatzea duena zeregin.

2.- JBRO jauna ORTOLAN sozietateko bazkidea da (sozietatearen % 33 da berea), bai eta Administrazio Kontseiluko kidea eta enpresak Espainia erdialdean eta hegoaldean duen salmenta arloko ordezkaria ere.

JBRO jauna Madrilen bizi da, eta, hala, ZAEAREN aurrean aurkezten du pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autolikidazioa.

3.- ZAEAK, 2016ko otsailaren 1ean, egiaztapen jarduketak abiatu zituen, zehazki, zerbitzuak eskusiboki ustez lurralde erkidean eman zituzten langile jakin batzuen lan pertsonalaren gaineko atxikipenak ordainarazteko eskumenarekin lotuta.

4.- ZAEAK, 2016ko apirilaren 15ean eta irailaren 16an hurrenez hurren, txosten bana kaleratu zuen ondorioztatuz akatsa izan zela AFARI sartzea langile jakin batzuen lan pertsonalaren gaineko 2012tik 2015era bitarteko atxikipenak.

5.- ZAEAK, 2016ko maiatzaren 11n eta azaroaren 2an, aipatutako atxikipenak bidaltzea eskatu zion AFARI.

6.- AFAK, 2018ko uztailaren 18an, bidalketak egitea onartu zuen, JBRO jaunaren atxikipenen kasuan salbu; izan ere, argudiatu zuenez, sozietateko bazkidea eta Administrazio Kontseiluko kidea izanik, ezinezkoa zen iriztea JBRO jaunak zerbitzuak eskusiboki lurralde erkidean eman zituenik.

7.- ZAEAK, 2018ko irailaren 18an, inhibititu zedila eskatu zion AFARI; aldiz, eskumena berea zela berretsi zuen AFAK.

8.- ZAEAK, 2018ko azaroaren 15ean, eskumen-gatazka planteatu zion Arbitraje Batzordeari; auziari 32/2018 espediente-zenbakia esleitu zitzaion eta prozedura arruntaren bidez izapidetu da.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak eskumena dauka gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 66.Bat artikuluan xedatutakoaren arabera; artikulua horrek eginkizun hauek ezartzen baitizkio batzorde horri:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

2.- Arbitraje Batzordearen jarrera

Kasu honetan egiaztatuta geratu da ORTOLAN sozietateak JBRO jaunari egindako atxikipenak JBRO jaunaren lan-prestazio pertsonalari dagozkiola.

Horrela ondorioztatzen da enpresak berak egindako adierazpenetik, zirkunstantzia argigarri batek berresten duena: enpresak ez du Administrazio Kontseiluko kide bakar baten ere prestazioa ordaindu.

Enpresaren adierazpenek eta atxikipenen xede izandako JBRO jaunaren beraren adierazpenak egiaztatzen duten bezala, JBRO jaunak Espainia

erdialdean eta hegoaldean soilik ematen ditu salmenta arloko zerbitzuak, hau da, eskusiboki lurralde erkidean.

Horrenbestez, Ekonomia Itunaren 7. artikuluan xedatutakoaren arabera, lan-atxikipenak ZAEari sartu behar zitzaizkion hasiera batean, bera baita zerbitzuak eskusiboki eman diren lekuko Administrazioa.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKI DU

1.- Ebaztea Zerga Administrazioko Estatu Agentziari dagokiola 2012tik 2015era bitarteko urteetan ORTOLAN DENTAL SL sozietateak JBRO jaunari egindako lan-atxikipenak ordainarazteko eskumena.

2.- Jakinaraztea honako erabaki hau Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, Arabako Foru Aldundiari eta ORTOLAN DENTAL SL sozietateari.